

MARKINA-XEMEIN / Senegaldarrak eta markinarrak hobeto ezagutzeko ekimenak antolatu dituzte

Urriaren 31ra arte era askotako ekitaldiak egongo dira; udaletxean erakusketa ipini dute.

EIDER MUGARTEGI

Xabi Lertxundi bidaiari eta abenturazalearen argazki erakusketa ikus daiteke egunotan Markina-Xemeingo udaletxean. Ekimena Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Munduko paisaiak egitasmoaren haritik dator. Horrela, urriaren 31ra arte, Senegalegaz lotutako hainbat ekitaldi egingo dira Markina-Xemeinen.

Kulturen arteko hurbilketa eta integrazioan liburutegiek duten garrantzia nabarmendu nahi du Eusko Jaurlaritzak sortutako kanpainak. Euskal Herriko hamaika liburutegitan egingo da, besteak beste, Markina-Xemeinen.

Liburutegi bakoitzak herrialde bat aukeratu du, Markina-Xemeinen kasuan, Senegal. Horrela, herri bibliotekak, Uhagon Kultur Elkartegaz eta ASEMA Markina-Xemeingo Senegaldarren Elkartegaz batera, herrialde horregaz lotutako hainbat ekimen antolatu ditu. Gainera, bibliotekako liburu funtsa handitu du, bai etorkinentzako liburuak lortuz baita bertokoei informazioa eskainiko dien liburuak eskuratuta ere. Horregaz guztiagaz, senegaldarren eta markinarren arteko harremanak estutu eta elkar hobeto ezagutzea lortu nahi dute.

Erakusketa

Horregaz egitasmoagaz lotutako ekimenetako bat Xabi Lertxundiren argazki erakusketa da. Udaletxean ikusgai ipini dituzten argazkiak 2008ko azaroan Lertxundiren familiak Donostiako Garraxi tabernan antolatu zuen erakusketaren parte dira: Xabiren begirada, mundua zabala da, zabaldu begirada. Eurretan, 2007ko urtarrilean, Xabi Lertxundik Senegal ezagutzeko egindako bidaian ateratako argazkiak ikus daitezke.

Erakusketa urriaren 30era arte dago udaletxeko sarreran, 09:00etatik 13:30era arteko ordutegian ikusteko moduan.

Ekimen gehiago

Argazki erakusketaz gainera, euskal sukaldaritza tailerra emango dute gaur Arretxinagan, berton ohikoak diren errezetak ikasteko, eta atzo, Jose Santacara nafarrak Afrikan zehar egindako bidaiaren ganeko proiektzioa egon zen musikagaz lagunduta. Horretaz gainera, pelikula bi eta proiektzio bat emango dituzte, eta beste hainbat ekimen prestatuta daude datorren asterako.

Senegali buruz berba egin dute

Senegalegaz zerikusia daukaten ekimenei lotuta egon zen eguenean egin zen udako oporren ondorengo lehenengo Irakurleen Txokoa. Mahai gainean zegoen herri bibliotekak Senegalen inguruan lortu duen materiala. Ez da asko, gaztelaniara itzulita dagoena gutxi delako eta euskaraz ez dagoelako ezer, azaldu zuten. Talde handia batu zen, 25 lagun inguru, bai euskarazko taldea, bai gaztelaniazkoa baita senegaldar talde bat ere. Fatou Diome senegaldarraren *En un lugar del Atlantico* liburuaz berba egin zuten denen artean. Bizi duguna irudikatzen du, aitatu zuen han zegoen senegaldar batek.

Egitaraua

- Urriaren 18an. Madame Brouette pelikula emango dute, 19:00etan, Uhagoneko erakusketa gelan.
- Urriaren 19tik 31ra. Markina-Xemeinen bizi diren senegaldarrei buruzko erakusketa Uhagon kulturgunean.
- Urriaren 23an. Amafrika proiektzioa egongo da, 22:00etan, Uhagonen.
- Urriaren 24an. Ipuin kontalariak egongo dira herri bibliotekan, 16:00etan eta 17:00etan. Umeentzat kontalariak, Lur Kortak, Afrikako ipuinak kontatuko ditu, eta nagusientzak kontalariak, Boni Ofogok, Senegalekoak.
- Urriaren 25ean. Little Senegal pelikula botako dute, 19:00etan, Uhagonen.
- Urriaren 31n. Takusan de Senegal jaia egun osoan, 11:00etan hasita. Sukaldaritza tailerra, mahai inguruak, tailerrak; janari dastaketa eta musika egongo dira.